



Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua Koaderno praktikoak

4. Profesionalak

Eginkizun berriak eta arreta-taldeak

Proiektuaren egileak:



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

MATIA
FUNDAZIOA

Pertsonarengan Oinarritutako Arreta

Koaderno praktikoak

Idazkuntza-taldea

Teresa Martínez, Pura Díaz-Veiga,
Mayte Sancho eta Pilar Rodríguez

Diseinua eta maketazioa

Imago Soluciones de Comunicación

“Pertsonarengan oinarritutako arreta-
eredua” koaderno praktikoen sorta Eusko
Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte
Politiketako Sailaren eta Matia Institutuaren
ekimena da

%100 paper birziklatua eta klororik gabekoa

ZERI BURUZKOA DA DOKUMENTU HAU?

Pertsonarengan oinarritutako arreta eskaintzeko, profesionalok askotariko gaitasunak erabili behar ditugu. Horietako batzuk oso garrantzitsuak dira, batez ere honako alderdi haiekin lotuta daudenak: entzutea eta enpatia, gaitasunak baloratzea eta pertsonaren historiara hurbiltzea, pertsonak gaitzea, egunerokotasunaren barruan jarduera terapeutikoak planifikatzea, edo erabiltzaileak erabaki-hartzeetan eta familiak arreta-planetan sartuko dituzten metodologiak erabiltzea.

Arreta-eredu hori benetan gauzatzeko gure eguneroko esku-hartzeak berraztertu behar ditugu. Pertsonarengan oinarritutako arreta benetan ematen dela ziurtatu behar dugu, pertsonen eguneroko bizimodura iristen dela. Argi izan behar dugu gure eginkizun profesionala zein den. Eta gure lana antolatzen jakin behar dugu, gainontzeko profesionalekin koordinatuta, arretarik onena erdiesteko.

Erronka piloa... gero eta adiago eta prestatuago egotera behartzen gaituztenak. Eta lankide batzuek dioten moduan, gauza batzuetan... “txipa” aldatu behar dugu.

Profesionalak.
Eginkizun berriak
eta arreta-taldeak

1. Zaintza profesionalaren ikuspegi berria.
2. Eginkizun berriak.
3. Eguneroko bizitzan autonomia eta independentzia sustatzea.
4. Talde profesionalen antolaketa.
5. Pertsonak zaintzen ditugun pertsonak.
6. Zerk laguntzen digu txipa aldatzen?

Honako hauentzat pentsatuta dago: Zerbitzuetako arduradun eta kudeatzaileentzat, Zentroetako zuzendarientzat, Teknikarientzat eta Zuzeneko arretako profesionalentzat.

1. ZAINZA PROFESIONALAREN IKUSPEGI BERRIA

Pertsonarengan oinarritutako arretaren esparruan modu berezian ulertzen da laguntza-harremana. Profesionalok dagoeneko ez dugu guk bakarrik erabakitzen gauzek nola izan behar duten. Pertsonak laguntzeko harreman berezia dugu xede, non gure laguntasuna “horizontalagoa” izango den eta pertsonak egiteko nagusia eta aktiboa izango duen.

Pertsonarengan oinarritutako arretaren xedea pertsonak gaitzea da, euren bizitzen gaineko kontrola eskura dezaten. Pertsonak gaituago eta zoriontsuago izatea ahalbideratuko duten aukerak antzematen eta baliabideak eskaintzen saiatzen da. Baita narriadura kognitiboa garrantzitsua denean ere.

Horrek profesionaltasun “plusa” eskatzen du. Pertsonarengan oinarritutako arreta ez da desprofesionalizatutako eredia. Inondik inora. Eredu horren alde egitean ez da gure zorroztasun teknikoa apur bat ere galduko, orain arte eskaintzen ari garen arretaren kalitatea ez da gutxituko.

Alderantziz. Eredu horrek ezagutza areagotzea eskatzen du, teknika eta estrategia berriak erabiltzea, izan ere, ebidentzia zientifikoak erakusten duenez, zaintza ulertzeko modu horrekin pertsonen bizi-kalitatea hobetu egiten baita. Eta funtsezkoa hori da. Ahulezia- edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen ditugunon helburua da.

Batzuetan, eredu horren alde egite aldera, gure egiteko modua eta lanaren antolaketa aldatu behar ditugu. Eta aldatzea ez da beti erraza izaten! Beldurrak, zalantzak, aurkako jarrerak azaltzen dira.

Eta are zailagoa dena: sarritan oso finkatuta dauden ohiturak eta prozedurak aldatu behar ditugu. Des-ikastea, hori da zailena! Izan ere, gauza asko ia konturatu gabe egiten eta errepikatzen

ditugu. Urteetan onena zelakoan egindakoak ere aldatu beharrean izango gara, orain ikusi baitugu ez direla horren egokiak!

“Urte askotan egindako gauza batzuk alde batera uztea izan zen zailena. Bideoan grabatu genuen eta gero aztertu; oso lagungarria izan zen, baina gogorra hasieran!

Adibidez, konturatu nintzen nahi gabe pertsonari galdetzeari utzi eta nik esaten niola zer egin behar zuen, erabakitasunez. Edo pertsonaren ardura genuen profesionalok geure artean hitz egiten hasten ginela, hark elkarrizketan parte hartu gabe”.

Rosa, eguneko zentroko zaintzailea



“Hasieran pentsatu nuen eredu horrekin talde teknikokoak soberan geundela. Baina ez da horrela, balorazioekin eta esku-hartze espezifikoekin aurrera egiteaz gain, eginkizun berriak ditut: talde teknikoko beste kide batzuekin batera, zaintzaileak orientatu eta hezi egiten ditut, horien ekimenak balioztatu eta laguntzen ditugu, eta erreferentziazko profesionali aholkularitza eskaintzen diegu. Era berean, laguntza-eta adostasun-taldeak abian jartzen hasi gara”.

Martín, psikologoa



2. EGINKIZUN BERRIAK

Gutako askok urteak daramatzagu adinekoei arreta eskaintzen. Profesional onak gara eta aspalditik ari gara gaitasun horietako asko lantzen. Esan ohi denez, “asko ikusia, asko ikasia!”. Beste batzuk, berriz, berriagoak irudituko zaizkigu, edo hobetu egin beharko ditugu.

Kudeaketari edo erakundeari berari garrantzi berezia ematen dioten erduekin alderatuta, bestelako jarrera eta eginkizuna dugu pertsonarengan oinarritutako arretaren esparruan ari garen profesionalok.

Baina... zein da aldaketa horren muina? Bestelako arreta-erduekin alderatuta pertsonarengan oinarritutako arretak dakartzan eginkizun-aldaketa nagusietako batzuk proposatzen ditugu ondorengo tauletan.



ERABILTZAILEAK GAITZEA ETA HORIEN AUTODETERMINAZIOA LAGUNTZEA

Erabiltzaileei begira, gure eginkizun nagusia da eurak gaitzeko eta autodeterminatzeko aukerak eta laguntzak bilatzea.

PROFESIONALEN EGINKIZUNAK ZERBITZURA BIDERATUTAKO EREDUETAN	PROFESIONALEN EGINKIZUNAK PERTSONENGANA BIDERATUTAKO EREDUETAN
Profesionalak ebaluatu eta agintzen du pertsonak behar duena, zentroan edo zerbitzuan harekin egin behar dena	Profesionalak pertsonaren biografia, gustuak eta bizimodua ezagutzen ditu. Hori oinarri hartuta, orientatu, lagundu, aholkatu, adostu, eta laguntza eskaintzen du, oso kontuan hartuta pertsonak nahi eta onartzen duena
Profesionalak bildu egiten dira erabiltzaileentzako arreta-planak ebaluatu eta proposatzeko	Erabiltzaileek, nahi badute, arreta-plana diseinatzeko eta ebaluatzeko prozesuan parte har dezakete
Segurtasuna eta ongizate fisikoa lehenesten dira	Segurtasuna eta ongizate fisikoa, batetik, eta erabiltzailearen ongizate emozionala eta nahiak, bestetik, orekatu egiten dira
Profesionalek erabiltzaileen “ordez” egiten dituzte gauzak, eguneroko lanak	Profesionalek erabiltzaileentzat eta haiekin batera egiten dituzte gauzak, eguneroko lanak
Profesionalek eurekiko konfiantza beharrezkoa dela transmititzen dute, eta ardura gutxi uzten dituzte erabiltzaileen esku	Profesionalek elkarrizketaren eta adostasunaren garrantzia azpimarratzen dute eta bakoitzak -profesionalak eta erabiltzaileak- bere ardurak hartu behar dituela



FAMILIEKIKO HARREMANA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA

Familiekin eta adiskideekin hurbiltasuna eta lankidetzaz sustatzen ditugu arretari dagokionez; dena den, horiek ez dute erabiltzaileen tokia hartu behar.



PROFESIOALEN EGINKIZUNAK ZERBITZURA BIDERATUTAKO EREDUETAN	PROFESIOALEN EGINKIZUNAK PERTSONENGANA BIDERATUTAKO EREDUETAN
Profesionalek familiak informatzen dituzte erabiltzaileak baino lehen. Euren arabera, erabiltzaileen ordeaz, familiak dira solaskide nagusia	Solaskide nagusia (narriadura kognitiboa nabarmena denean izan ezik) adinekoak eurak dira. Profesionalek adinekoei galdetzen diete familiek arreta-planean parte hartzea nahi ote duten eta onartzen duten
Profesionalak, gehienez ere, euren esku-hartzeei buruz informatzera mugatzen dira	Erabiltzaileek eta familiek arreta-planarekin lotutako erabakietan parte hartzen dute
Arreta, zentroaren eta zerbitzuaren ardura dela uste dute profesionalek	Zaintzan, familiekin lankidetzan aritzea garrantzitsua dela transmititzen dute profesionalek

ANTOLAKETAREN MALGUTASUNA BULTZATZEA, ETENGABEKO ZUZENEKO ARRETAKO PROFESIOALEN INPLIKAZIOAREN ETA KONPROMISOAREN ALDE EGITEA

Gure lanaren antolaketari dagokionez, zuzeneko arretako oinarrizko taldeen protagonismoa areagotzearen eta arreta malgutzearen alde egiten dugu.

PROFESIONALEN EGINKIZUNAK ZERBITZURA BIDERATUTAKO EREDUETAN	PROFESIONALEN EGINKIZUNAK PERTSONENGANA BIDERATUTAKO EREDUETAN
Eguneroko bizitza, programatutako lanen inguruan antolatzen da	Eguneroko bizitza, erabiltzaileen eta euren lehentasunen arabera antolatzen da
Ordutegia eta jarduerak finkoak dira	Ordutegia eta jarduerak malguagoak dira
Profesionalen zereginak finkoak dira	Profesionalak polibalenteak dira, betiere euren gaitasunen arabera
Kualifikatutako profesionalek esaten diete gainontzekoei egunerokoan zer egin behar den	Kualifikatutako profesionalek, etengabeko zuzeneko arreta eskaintzen duten profesionalak aholkatu eta laguntzen dituzte, horiek arduratzen baitira egunerokoan erabaki asko hartzeaz

3. EGUNEROKO BIZITZAN AUTONOMIA ETA INDEPENDENTZIA SUSTATZEA

Autonomia eta independentzia Pertsonarengan oinarritutako Arretaren funtsezko helburuak dira.

Ilido horretan, pertsonaren iritzia eta erabakia ditu oinarri, bere gauzen gaineko ahalik eta kontrol handiena izan dezan eguneroko bizitzan. Eta eguneroko bizitzan independentziaz jardun dezan lortu nahi da.

Bi kontzeptu ezberdin: autonomia eta independentzia.

AUTONOMIA

- Erabakiak hartzeko, jarduteko, norbere bizitza kontrolatzeko eta horien ondorioak onartzeko gaitasuna da. Heteronomia terminoaren aurkakoa da (pertsonek ordez besteek erabakitzen dutenean).
- Eta pertsonaren eskubidea ere bada. Autodeterminazio-gaitasuna nabarmen urritu denean, bere nortasuna, balioak, bizitza-proiektua eta ongizate subjektiboa kontuan hartuta ordezkatua izateko eskubidea du pertsonak.

INDEPENDENTZIA

Eguneroko bizitzako jarduerak era independentean aurrera eramateko gaitasuna da, inoren laguntzaren beharrik gabe. Mendekotasuna terminoaren aurkakoa da.

Pertsona batek hartzen dituen erabakiak gauzatzea alderdi askoren menpe dago. Lehenik eta behin, pertsonaren gaitasun kognitiboak eta emozionalak aipatuko ditugu, baina baita pertsonak gauzak bere kabuz egiteko gaitasuna ere. Pertsona zenbat eta independenteagoa izan orduan eta gaitasun handiagoa izango du bere aukerak aurrera eramateko.

Gaitasun mugatuak dituzten pertsonen kasuan, ingurune fisikoa eta soziala (pertsona laguntzen dugunok) erabakigarriak izango dira bere autonomia eta independentzia sustatzeko.

Gainera, jakin beharra dago erabakiak hartzeko gaitasuna ez dela finkoa eta erabatekoa. Autonomia ez da egoera guztietarako edukitzen den edo edukitzen ez den ezaugarria. Erabaki bakoitzaren edo horren ondorio den ekintzaren arabera da. Erabakiaren edo ekintzaren konplexutasunaren edo arriskuaren arabera gaitasun handiagoa edo txikiagoa behar da. Ez da gauza bera jantzi beharreko arropa aukeratzea eta ondare pertsonala nola inbertitu erabakitzea.

Ez da gauza bera lagunduta nondik paseatu erabakitzea eta norbere kabuz bidaiatzea. Erabaki baten ondorioak onartzeko behar den gaitasuna erabaki horren konplexutasunaren eta arriskuaren arabera da.

Horregatik, arriskurik ez duten eguneroko bizitzako erabakietan (asko dira: zein arropa jantzi, norbere burua txukundu, zer egin, ordutegiak...) egokia da bizitza-historiara jotzea eta behatzea, pertsonari bere erabakian laguntzeko. Txikia dena garrantzitsua delako, zaindariok, gauza batzuetan, erabakiak “ordezkatu” edo laguntzeko orduan, gure ustez pertsona horrek beste une batean egingo zukeena kontuan hartzen saiatu behar gara.

BENETAKO AUTONOMIA HONAKO FAKTORE HAUEN MENPE DAGO:

1. Norberaren ezaugarriak

- _ Gaitasun kognitiboa eta emozionala
- _ Gaitasun funtzionala (jarduerak burutzeko)

2. Egoera bakoitzaren arabera (erabakia, ekintza)

- _ Konplexutasuna
- _ Egoerak duen arriskua

+

3. Ingurunea (laguntza / oztipoa)

- _ Gune eta giro fisikoa
- _ Laguntzaile garenok

Pertsona bakoitzaren autonomia eta independentzia sustatzeko, modu pertsonalizatuan jardun behar dugu beti. Pertsona guztiak berdinak direla pentsatzea eta horren arabera jardutea, guztiei gauza bera proposatzea, pertsonak modu berean tratatzea... horrek ez du emaitza onik!

Ez dugu ahaztu behar gure jokabidearen arabera (gure jarrerekin, keinuekin, hitzekin, ekintzekin) autonomia eta independentzia sustatu edo oztopatu ditzakegula.

Eguneroko bizitzan autonomia eta independentzia sustatzeko modua

- Pertsona ondo ezagutu, oso kontuan hartuta egindako balorazioak eta batez ere bizitza-historiaren edukia.
- Adinekoak oraindik badituen edo gara ditzakeen gaitasunak antzeman eta ikusi.
- Galdetu, behatu eta bilatu pertsona bakoitzean zer erabaki dezakeen eta bere eguneroko bizitzan zein erabaki diren garrantzitsuenak.
- Narriadura kognitiboa duten pertsonen kasuan ez hartu automatikoki erabakiak haien orde. Ikusi zeren inguruko iritziak izan ditzakeen eta zeri buruz erabaki dezakeen. Egoerak erraztu.
- Pertsonaren egoera txarra bada, ia gaitasunik ez badu adierazteko edo gure hitzak ulertzeko, bere egoera emozionala behatu behar da, arbuio-erreakzioak, ahozkoa ez den adierazpidea, eta ongi sentiarazten diona antzeman behar da.
- Pertsona bakoitzaren erritmorra egokitu behar gara. Hori ezinezkoa denean, denbora faltagatik, gutxienez gure jokabidea azaldu beharko diogu.

(Jarraitzen du)

- Dementia aurreratua duten pertsonen portaeren logika eta adierazpenen esanahia bilatu. Ez jo zentzugabetzat.
- Protokoloak ez erabili zorroztasunez. Gehiegizko protokoloak edo horiek “automatikoki” aplikatzea ez datoz bat arreta pertsonalizatuarekin.
- Pazientzia izan eta saiatu eskari edo jarrera errepikakorrak ulertzen, batzuetan aurkakoak badira ere (ipini hau hor, jarri iezadazu manta ondo, jar nazazu hor, alda nazazu tokiz...), ahaztu gabe, sarritan, euren inguruaren gaineko kontrol handiagoa lortu beharragatik egiten dutela hori, edo, besterik gabe, urduri daudelako.

“Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa” (Martínez, 2011) lanetik hartuta eta egokituta



Positiboak izango diren aldaketak bilatu behar ditugu. Erakundeak eta lan egiteko moduak ere alda daitezke. Erabiltzaileei eta profesionaleri ongizatea emango dieten aldaketak aurkitzea da gakoa.

LEHEN...



Bazkaltzeko menuaren berri ematen genien eta mahaia atonduta zegoenean deitzen genituen.

Aisialdiko jardueren programak ordutegi finkoak zituen. Normalean, jarduera berberak izaten ziren astero, astelehenetik ostiralera. Jardueraren arduradunak esandako erabiltzaileak jaisten genituen aretoetara. Horieta batzuk ia derrigortuta joaten ziren.

ORAIN...



Egun askotan guztion artean erabakitzen dugu postre edo askari modura zer jan. Eta prestatu egiten dugu. Bakoitzak ahal duena egiten du. Mahaia ere guztion artean atontzen dugu, beti piper egiten duen horrek izan ezik...!

Orain jarduera bereziak planifikatzen ditugu astero. Familiaren batek ere hartzen du parte. Badira programatutako terapiak ere, baina norbaitek gogorik ez badu edo egun ona ez badu, zer egin nahi duen galdetzen diogu eta bere nahia errespetatzen dugu.

“Eguneroko bizitza. Jarduerak egitea” 9. dokumentuan, autonomia eta independentzia eguneroko jardueretan sustatzeko moduei buruzko adibide gehiago aurkituko dituzu.

4. TALDE PROFESIONALEN ANTOLAKETA

Era bateko eta besteko profesionalak gara beharrezkoak. Horrela izan gara beti, eta orain gehiago, izan ere, aurre egin beharreko erronkak eta aldaketak dakarzkigun ereduaren aurrean baikaude. Kualifikazio handiagoa eskatzen duen eredia da.

Horregatik, ezinbestekoa zaigu diziplina anitzeko ikuspegia. Gutako bakoitzak, gure prestaketarekin eta gure diziplinatik abiatuta, ikuspegi garrantzitsuaren ekarpena egiten dugu pertsonen bizitza hobetzeko.

Pertsonarengan oinarritutako arretaren esparruan balio handia ematen zaie diziplina anitzeko talde osoaren ideia alde batera utzi gabe egunero elkarrekin aritzen direnei. Hori lortzeko, gai izan behar dugu **eguneroko laguntza-taldeen lana (etengabeko zuzeneko arretako profesionalena) eta talde teknikoarena sintonizatzeke.**

Eguneroko laguntza-taldea

Etengabe erabiltzaileekin dauden profesionalek osatzen dute: gerokultoreek, erizain laguntzaileek, arreta soziosanitarioko teknikariek edo zaintzaileek. Adinekoen ongizatean erabakigarriak dira. Izan ere, haien ondoan daude egunerokoan eta eurak dira erabiltzaile bakoitza ondoen ezagutzera hel daitezkeenak.

Zuzeneko arretako profesionalen egitekoak argiak eta onartuak izan behar dira. Erakundeak konfiantza izan behar du eurengan eta euren alde egin; horretarako, kualifikazioa eta zentroko gainontzeko profesionalen eta zuzendaritzaren laguntza behar dute.

Pertsonak entzunaz eta behatuz, zaintzaileek eguneroko egiteko asko antolatu eta erabaki ditzakete. Egunerokoari buruzko erabakiak, ohikoak direnak. Pertsonen beharren, erritmoen eta nahien arabera ondoen antola ditzakete eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (jaiki eta oheratzea, bainua, bazkaria...). Eta baita ere taldean egin daitezkeen jarduera suspertzaileak edo aisialdikoak. Nolanahi ere, beti kontuan izan behar dituzte Arreta eta Bizitza Planean adostutako helburuak. Plangintza horretan, erreferentziako profesionalak talde teknikoarekin eta erabiltzailearekin batera hartu du parte.

Pertsonak zuzenean zaintzeaz arduratzen diren hainbat profesional dauden zentroetan, **ezinbestekoa da erreferentziako profesionalaren figura**. Etengabeko zuzeneko arretako profesional hori modu berezian arduratzen da hainbat erabiltzailearen arreta pertsonalizatuaz



eta ongizateaz, eta bere egitekoa da talde teknikoarekin harremanetan egotea eta beharrezko galderak egitea.

Erreferentziazko profesionalaren asmoa da profesionalen artean konfiantza, komunikazioa eta arretaren jarraipena oinarri dituen harremana ziurtatzea. Asko dira figura profesional berri horrek izan ditzakeen egitekoak. “Zentroetako erreferentziazko profesionala” 5. dokumentuan aurkituko duzu arreta-eredua gauzatzeko horren garrantzitsua den figura horri buruzko informazio gehiago.

“Eguneroko laguntza-taldea sei lankidek osatzen dugu, bost emakume zaintzailek eta gizonezko batek. Ez gaude beti elkarrekin, noski, txandaka egiten baitugu lan. Baina, bi bizikidetza-unitatetan gaudenez, ondo ezagutzen ditugu pertsona guztiak. Egunero, autonomia dugu gauza asko antolatzeko. Pertsonak jaikitzeke ordua, bainua goizez egitea (batzuetan, beharrezkoa ez bada eta pertsonak nahiago badu, ordua aldatzen dugu). Pertsonarekin batera aukeratzen dugu jantziko duen arropa eta nola dotoretuko den.

Eguneko aisialdiko jarduerak ere proposatzen ditugu, eta adi gaude sortzen diren ideiak jasotzeko. Gogorik ba al dago kantatzeko, kanpora ateratzeko, loterian jokatzeko edo aldizkariak ikusteko? Pertsonen galdetzen diegu eta familiak parte hartzera animatzen ditugu.

Egoera konplexuagoa sortzen bada, adibidez, Mariak orain arratsalde izaten duen beldurra, behatu eta gero talde tekniko beste lankide batzuekin hitz egiten dugu. Eta bestelako konponbideak bilatzen ditugu”.

Anu (zaintzailea bizikidetza-unitate batean)

Eguneroko laguntza-taldeen funtzionamendu egokia errazten duten osagaiak

- Eguneroko lanak antolatzeko gaitasuna, adinekoak eta euren familiak partaide direla.
- Proaktibitatea, hau da, behar berriak sortzen direnean ideiak proposatzeko gaitasuna.
- Talde teknikoarekiko koordinazioa, zailtasunen aurrean erantzunak bilatzeko edo jarduera edo ideia berriak planifikatzeko.
- Konfiantza eta laguntza zentroko zuzendaritzaren eta talde teknikoaren aldetik.
- Familien inplikazioa eta parte-hartzea zaintzan eta jardueretan.
- Bizikidetzatalde bakoitzaren antolaketa independentea (jarduera-ordutegiak, jarduera motak, edozer egiteko zentroaren funtzionamendu orokorraren menpe egon beharrean).
- Etengabeko zuzeneko arretako langileen errotazioak gutxitzea.
- Erabiltzaileek eta familiek hainbat profesionalen gaitasunen inguruan dituzten espektatibak doitzea.
- Beharrezkotzat jotzen diren antolaketa-aldaketak inplikaturako profesionalekin eta sindikatuarekin adostea (karteldegia, errotazioak gutxitzea, profesionalak birkokatzea...).

Talde tekniko

Askotariko profesionalek (medikuek, erizainek, psikologoek, gizarte-langileek, pedagogoek, okupazio-terapeutek, fisioterapeutek, hezitzaileek, animatzaileek, etab.) osa dezakete, zaintzaileekin batera, zentro bateko diziplina anitzeko taldea.

Zentroaren tamainaren eta motaren arabera, modu batera edo bestera osa eta antola daiteke taldea. Zentro txikienetan agian ez da beharrezkoa izango talde tekniko profesional guztiak “plantillakoak” izatea; horrelakoetan, zonalde bakoitzean diren baliabide komunitarioak erabil daitezke (osasan-zentroa, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, etab.).

Pertsonarengan oinarritutako arretan eguneroko laguntza-taldeek garrantzia nabarmentzen da, baina ezin da dena besteren esku utzi. Talde teknikoak egiteko garrantzitsuak ditu arreta-



eredu horretan. Egiteko horietako batzuek kualifikatutako profesionalen esku jarraitu behar dute (balorazio espezializatuak, diagnostikoak, tratamenduen jarraibideak, terapia batzuk egitea, ebaluazioak edo segimenduak...).

Garrantzitsua da erreferentziazko profesionalak harreman estua izatea profesional horiekin guztiekin, eta beharrezkoa denean haien laguntza eta aholkua eskatzea.

Talde teknikoaren egitekoak

- Pertsona bakoitzaren balorazio integrala egitea eta haren Arreta eta Bizitza Plana proposatzea.
- Besteren esku utzi ezin diren esku-hartze profesionalak burutzea.
- Eguneroko laguntza-taldeen etengabeko prestakuntza laguntzea.
- Eguneroko laguntza-taldeein aholku ematea eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko, eta batez ere, egoera konplexuagoren bat sortzen denean.
- Erreferentziazko profesionalari galdetzea eta laguntzea, pertsona bakoitzaren eguneroko arretarako aukera onenak bilatze aldera.
- Eguneroko laguntza-taldeen etengabeko prestakuntza laguntzea.
- Kasu bakoitzaren segimendua eta aldizkako ebaluazioa burutzea.
- Bestelakoak: Programak, protokoloak, metodologia berriak eta abar diseinatu eta ebaluatzea.

5. PERTSONAK ZAINZEN DITUGUN PERTSONAK

Besteekiko laguntza-harremana oso atsegingarria izaten da helburu errealistekin eta bizi-kalitatea hobetzearekin lotuta daudenekin lan egiten dugunean.

Baina batzuetan zaila ere izan daiteke. Egoera batzuetan ez dakigu zehatz-mehatz zer egin behar dugun, eta zalantzak eta ezinegona sor diezagukete.

Era berean, errutinaren eta asperduraren arriskuak azaltzen dira profesionalok lanean nahiko denbora daramagunean.

Zailtasun horiei aurrea hartzeko eta aurre egiteko laguntza beharko dugu. Profesionalentzako lagungarriak diren estrategiak prestatu eta abian jarri beharko dira, egoera horiei aurre egiteko gaitasun handiagoa izan dezaten. Beste esperientzia batzuen berri izatea eta jardunbide egokien sareetan parte hartzea lagungarri izan dakiguke.

Profesionalei laguntzeko estrategia batzuk

Langile berria hartu eta prestatzea

- Hasierako ikastaro bat baino gehiago izan dadila.
- Lagungarri izan dadila langile berriak laneratzeko.
- Lagungarri izan dadila eginkizuna modu egokian aurrera eramateko, arreta-ereduaren ildoan.

(Jarraitzen du)

Aukera egokiak dira:

- _ Zentroaren ikuspegia eta eredia erakusten duten eskuliburuak, gidak, bideoak.
- _ Pertsonarengan oinarritutako arretaren filosofiarekin eta metodologiarekin bat datorren hasierako prestakuntza burutzea.
- _ Esperientziadun profesional batek gainbegira dezala profesional berrien laneratzea, lagun diezaiela euren egitekoak ondo barneratzen eta eginkizuna egoki burutzen.

Etengabeko prestakuntza

- Plan koherentea proposa dezala, eta ez dadila osatu prestakuntza-ekintza isolatuekin.
- Gaitasun teknikoez gain harremanei eta etikari buruzkoak ere kontuan har ditzala.
- Prestakuntza-beharrak antzematen diren heinean kontuan har ditzala.

Bertatik bertara laguntzea

- Ikasitakoa eguneroko zaintzaguneetara eramatea ahalbideratuko duen metodoa izatea.

Aukera egokiak dira:

- _ Eguneroko jarduera-uneak bideoan grabatzea, gero bakoitzak gainbegira ditzan.
- _ Taldeko bilerak hainbat gai aztertzeko.
- _ Beste profesionali galdetzea.

Laguntza emozionala eta talde-funtzionamendua berraztertzea

- Taldeen funtzionamendu egokia gainbegiratzeko eta gatazkei aurrea hartzeko.
- Une konplexuak gainditzeko gaitasuna lantzeko.
- Berraztertzeko guneak izatea, gure gaitasunak eta zailtasunak onartzeko.

(Jarraitzen du)

Aukera egokiak dira:

- _ Emozioak kudeatzeko gaitasunak lantzeko prestakuntza-ekintzak.
- _ Laguntza-saioak, kasu konplexuak eta gertakari kritikoak (suizidioak, istripu larriak...) ematen direnean.
- _ Coachinga.
- _ Adituekin eta etika-batzordeekin kasuak kontsultatzea.

6. ZERK LAGUNTZEN DIGU TXIPA ALDATZEN?

Arreta-eredu horren proposamenak gauzatu ahal izateko, batzuetan aldatu egin beharko ditugu orain arte ohikotzat genituen pentsamoldeak eta jarduteko moduak.



Eta aldatzea neketsua izaten da. Aldaketen aurkako jarrerak azaltzen dira, hainbat arrazoi medio: berraztertu gabeko usteak, behar beste eguneratu gabeko ezagutzak, zailtasunak handiesteko joera, beldurrak (batzuk arrazoitua, beste batzuk ez horrenbeste), zalantzak... eta baita interes jakinen alde egitea ere. Jarraibide edo estrategia batzuk izateak lagun gaitzake.

Aldaketarako prest dauden talde profesionalak lortzeko lagungarri dena

- Gure enpatia lantzea. Besteen tokian jartzea. Lagun hurkoak egoera jakin batean sentitzen duena ulertzeko gai izatea.
- Aldaketa-esperientzia arrakastatsuen eta benetakoen berri izatea. Nola egin duten jakitea. Posible dela ikustea.
- Ereduak dituen abantailak ikustea, ez bakarrik erabiltzaileentzat, baita profesionalentzat ere.
- Geure baliabideak eta gainontzekoenak deskubritzea. Guztion artean ahal dugula jakitea.
- Aurkako jarrerak antzematea: geureak eta gainontzekoenak.
- Benetako zailtasunak ezagutzea eta ordezeko aukerak izatea.
- Denbora hartzea. Jarrera-aldaketa ez da egun bakarrean lortzen... aurkako jarrerak azaldu egin behar dira, adierazi eta hitz egin.
- Gelditu beharra dugu. Gure eguneroko jarduna aztertu. Gure lehen erantzuna ez dadila izan: hori dagoeneko egiten dugu...!

(Jarraitzen du)

- Errutina aspergarria saihestu. Aukera berriak bilatu, sortzaile izan.
- Ez ahaztu lana bizitza-lekua dela, denbora asko ematen dugula bertan. Giro ona lortzen badugu, gure eguneroko ongizatea hobetuko dugu.

“Lehen halabeharrez joaten nintzen lanera, soldata irabazteko. Egun batzuetan sekulako ahalegina egin behar izaten nuen etxetik ateratzeko. Ez nengoen pozik egiten nuenarekin, eta tentsio-giroa itogarria zitzaidan.

Orain gauzak aldatu egin dira. Guk geuk antolatzen dugu lana. Eguneroko jardunean ardua eta askatasun gehiago dugu. Bizitza-historiak landu ditugu eta lehen ez genekizkien gauzak dakizkigu erabiltzaileei buruz.

Bost egoiliarren erreferentziazko profesionala naiz, eta aldaketa garrantzitsuak egin ditugu jardueretan. Gauza askoz interesgarriagoak egiten ditugu eta guztiok askoz hobeto pasatzen dugu. Arte-tailerra eta baratza antolatu ditugu, eta musikak leku oso garrantzitsua betetzen du. Betidanik musika asko atsegin dudanez, materiala eta saioak prestatzeaz arduratzen naiz.

Aurreko batean CDak grabatzen pasa nuen arratsaldea etxean, hurrengo hilabeteetan jarduerak egiteko. Ez nuen uste halakorik egingo nuenik...!”

Koldo, eguneko zentroko laguntzailea

GEHIAGO JAKITEKO

- **MARTÍNEZ, T. (2011).** “Pertsonarengan oinarritutako arreta gerontologikoa”. Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza.

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/r45-contss/es/contenidos/informacion/publicaciones_ss/es_publica/adjuntos/Atencion%20Gerontologica.pdf

Pertsonarengan oinarritutako arreta-eredua

Koaderno praktikoak

1. Pertsonarengan oinarritutako arreta. Zertan datza arreta-eredu hau?
2. Pertsonarengan oinarritutako arreta. Nola gauzatu?
3. Nola eta non nahi dut ni zaintzea? Pertsonarengan oinarritutako arreta, arreta-eredu berria
4. **Profesionalak. Eginkizun berriak eta arreta-taldeak**
5. Zentroetako erreferentziatzeko profesionala
6. Laguntza behar duten pertsonentzako bizikidetzaren unitateak
7. Pertsona ezagutzea eta haren autodeterminazioa babestea. Arreta eta bizitza plana
8. Pertsona ezagutzea eta haren autodeterminazioa babestea. Babes- eta adostasun-taldea
9. Eguneroko bizitza. Jarduerak egitea
10. Eguneroko bizitza. Gainerakoekiko harremanak
11. Eguneroko bizitza. Zainketa pertsonalak